



JAKI LARRE

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦

Cum grano salis

ZENBAT EMAZTE zerrendetako buru? Ez gaituzte sekulan utziko gizon horiek!”. Kafe hartzen, dena hitz eta putz, orain arte deklaratu herri hautes-zerrendak solasgai, feminismoaren gailurtzat har zitekeen oharra. Ez nion erantzunik atzeman, ez eta deus onik iragarri.

Gogoratu zitzaidan haur janari marka baten telebista spot samurra, zeinetan haur mukizu ipurterreen irudi zirrargarrien eta ama gainditu baina zoriontsuen hasperenen artetik iragartzen baitzaigu: “*Blédina, du côté des mamans*” (*Bledina*, amen alde). Ez edozein kategoriaren aldekoa, ez! Iradoki eta uzten zaigun berezko funtzio natural ohoragarri horren betetzera dedikatzen diren emazteena: amak. *Blédinari* esker, gustu zipitzik ez duen janariz ase haurrak despediturik, etxeko beste lanei lotzen ahalko gara, eta denborak ahalegintzen badi-gu gure buruak doia entretenitzen ahalko ditugu, etxeratuko den senarrari aho-beteka kliskatuko duen afaria prestatzen akitu aitzin. Oronen buru hori baitugu, edo bestela Amélie Poulain-en irribarre gozoaren janzte, deus errekeritu gabe, zorion erromantikoaren bilaketan temati eta inguruko miserable guzien artatzaile.

Ez dut besterik ikusten, “uzten” digutenik diot. Harago, emazte gerlariaren itxura genuke, haur eta senarrak apartatuz, bestelako denbora pasan galtzen

denarena, betetze eta garapen pertsonal nahiz sozia-
lez ezin ase figura kanibala, kasurik onenean; okerre-
nean, ez aipa.

Hauteskunde zerrendetan, abertzaleetan barne, oraindik emazterik ez buru. Harritu behar genuke?

Hauteskunde zerrendetan, abertzaleetan barne, oraino emazterik ez buru. Parekotasun legeak behartzen ez bagintu diskriminazio pseudo positibora, agian bakarra ezarri zitekeen, 15. postuan edo

Parekotasunaren legeak behartzen ez bagintu diskriminazio pseudo positibora, agian bakarra ezarri zitekeen, 15. postuan edo. Loreontzi bat beti on baita, konpainia oneko mahaien edergailu eta, oroz gainetik, hala gertatzeko gizon batek lekua hustu beharko bailuke. Paraleloan, errealitate honek, duda sor liezaiguke: gomitatuko ote gintuzkete egin genezakeen ekarpen interesgarrien menturan ala kuota betetzeko? Hau beste gai dela? Ez, naski.

Hots, horra inspiratu zidana. Zeren, azken finean, “gizonek ez

gaituzte uzten” errateak horren guztiaren onartzea adierazten baitu, bidean galarazten baikaitu. Afera honetan, besteetan bezala, ahaleginetan etsitu eta utzi gaitzaten goaitatuko bagenu, Eguberriak eta berdin Bazkoak iraganen litzaizkiguke, tipulak lagun. *Blédinari ez!*, besteen zerbitzari isil, neheloko esker onik gabe, hainbeste izerdi eta negar isuri zuten gure aitzinekoen laidoa. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Papistak

ELIZA ETA ESTATUA 1905etik bereiz dabil-tza Frantzian eta eskola girixtinoen erai-kuntzak finantziatzea debekatzen duen Falloux legea 1850ekoa da, bi zedarrien haustea eskatzen duena. Ez dakit ohar-tzen direnez, baina bretxa horiek zabal-tzen baldin badira, ikastolen onerako adi-bidez, Estatua papisten, islamisten eta fede-aire estremistenen esku utziko dute. Egia da euskaldun gisa Frantziako Estatuaren destinoaz axola gutxi dagoela gure artean.

Entzuten da Francesco Aita Saindua progresista dela erraten. Aurrerapena ote da Parisen, urtarrilaren 19an, 1974ko

Simone Veilen abortatzeko eskubidearen aurka ibili diren milaka kide, Baionako apezpikua barne, Erromatik sostengatzea? Halaber, Lyongo Barbarin kalotadunak oniritzi ditu ez hain aspaldi ezkontza homosexualaren kontra zirenen lerroak: birjina eta mandoilo xifritu oihulariek ikur berdinak zeuzkaten ahurretan.

Zertara dator eliza estatuaren aferetan muturra sartzera? Mundua Vatikanoren arabera harilkatu balitz uste dut arorik ilunenean ginatekeela oraindik: herritarrak estresatze-ko ordez xahatu ditzala lehenik bere artzaindegi urrinduak! ■

